

## TANZMESSEKO NAZIOARTEKO DANTZA AZOKARA JOATEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA

**TANZMESSE 2024 Nazioarteko Dantza Azoka** abuztuaren 28tik 31ra ospatuko da Düsseldorf (Alemania). **Eusko Jaurlaritzaren, Etxepare Institutuaren eta ADDEren** arteko lankidetzari esker, "**BASQUE DANCE**" standa izango dugu bertan.

Etxeparek bidalitako mezu elektronikoan ikusi duzuen bezala, zure konpainia, enpresa edo elkarte profesional batek 150 €+ BEZa ordaindu beharko du, gutxi gorabehera. Horren barruan sartzen dira azoka-esparrura sartzea, hitzaldietara sartzea, dantza-ikusketarako gonbidapenak, Tanzmesen profil bat gune profesionalean, eta parte-hartzaileen eta kontaktuen zerrenda sartzea.

**ADDEk deialdia ireki du 500 €-ko 4 laguntza ekonomiko eskaintzeko (zergak kanpo)** Tanzmesen egoteko interesa duten ADDEko bazkide eta Euskal Herriko dantza-lanen katalogoko konpainiei azokara joateko gastuak ordaintzen laguntzeko.

**Aukera hau nazioarteko testuinguruetan lan egin nahi duten eta dagoeneko nazioarteko konexioak esploratzen, ikertzen eta eraikitzen ari diren pertsonentzat da.**

Lau poltsa horietako bat eskuratu ahal izateko, honako dokumentazio hau bidali behar da.

### **Dokumentazioa**

- Konpainiaren edo sortzailearen curriculum.
- Tanzmesseko azokan konpainia edo sortzailea ordezkatzeko duen pertsonaren curriculum. Garrantzitsua da curriculumean ingeles maila adieraztea.
- Motibazio-gutuna.

### **Positiboki baloratuko da:**

- Nazioartekotze-planaren zenbait ildo motibazio-gutunean sartzea.
- Motibazio-gutunean sartzea interesgarritzat jotzen dituzun merkatuak konpainiaren edo sortzailearen lanentzat.
- Aldez aurreko esperientzia salmenta-testuinguruetan edo azoka profesionalean.
- Gutxienez pieza bat prest izatea nazioartean biratu ahal izateko.

*Balorazioei buruzko oharra*

*Hautaketan lehentasuna izango dute baldintzak betetzen dituzten eta Eusko Jaurlaritzaren banaketa-dirulaguntzarik jaso ez duten konpainiek eta/edo sortzaileek.*

### Beste betekizun batzuk

Faktura bat egin ahal izatea ADDEri, emandako laguntzaren zenbatekoarekin (500 €+ BEZ)

### Izena emateko epea

Maiatzaren 10etik 24ra [catalogo@addedantza.org](mailto:catalogo@addedantza.org) helbidean.

### Eskaeren balorazioa eta hautaketa

Balorazioa eta hautaketa ADDEko zuzendaritza-batzordeko kideek osatutako batzorde batetik egingo da.

Hautatutako konpainien edo sortzaileen komunikazioa **maiatzaren 27ko asteen** izango da.

**BASQUE.  
DANCE.**

**DANTZA** **ADDE**  
Asociación de Profesionales  
de la Danza del País Vasco  
Euskal Herriko Dantza  
Profesionalen Elkartea

